

DIGESTIOA

INFORMAZIOA

Bideoa:

Aurkezpena:

Irakurtzeko:

AHO FASEA



Ahoan digestioaren lehen prozesu mekanikoak eta kimikoak gertatzen dira. Janaria murtzikatu egiten dugu eta listuarekin nahasten dugu (hortz-haginen eta mihiaren laguntzaz). Ahoan listu guriak ditugu eta horiek sortzen duten urinak, listuak, bi eginkizun betetzen ditu:

- 1 elikadura bolak sortu eta
- 2 almidoiak azukre bihurtu.

URDAIL FASEA



Elikadura-bola faringean eta hestegorrian zehar urdailera iristen dira. Urdailako paretak mugitzen hasten dira, janaria hor geratzen da momentu jakin batez. Urinen eta urdailaren mugimenduak eginez; proteinak eta karbohidratoak desegin egiten dira eta ore bihurtzen dira. Urdailaren beheko irteera, piloro izeneko balbula, itxita egoten da. Orea eginda dagoenean ireki egiten da eta heste meharrera igarotzen da.

HESTE FASEA



Gibelak sortutako behazuna, behazun-maskurian pilatu ondoren, heste meharrera isurtzen da eta han janari ahiarekin nahasten da. Heste meharrera iristen den bigarren urina areak isurtzen duen are-urina da. Bi urin horiei laguntzeko, beste urin bat isurtzen dute hesteen paretak: heste urina. Digestioaren ondoren, hondakinak sortzen dira. Odolak ez ditu hondakin horiek xurgatzen eta, hala, beren bideari jarraitzen diote, heste lodiraino.